



Arartekoaren 2019S-496-19 Ebazpena, 2019ko abenduaren 12koa. Horren bidez, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailari iradokitzen dio berrius dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea azkentzeko ebazpen bat; izan ere, uste du kexagileak bete zituela aurretiaz berrabiarazteko betekizunak eta bete zuela Administrazioari laguntzeko betebeharra, diru-sarrera nahikorik ez zuela frogatzeko agiriak aurkeztuz.

Aurrekariak

1.- Herritar batek aurkeztutako kexa onartu zuen Arartekoak izapidetzeko. Horren bidez, interesdunak Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen, ez zegoelako ados Lanbideren ebazpen batekin. Ebazpen horretan Lanbidek eten egin zizkion diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria, eta gero, etenaldiak 12 hilabete baino gehiago iraun zuenez, prestazioa azkentzeko ebazpena eman zuen.

Kexagileak prestazioa berrabiarazteko eskatu zuen. Betekizunak betetzen zituela egiaztatzeko behar ziren agiriak erantsi zituen. Lanbidek, 2019ko otsailaren 21eko ebazpenaren bidez, eskubidea etenda mantentzea erabaki zuen.

Kexagileak adierazi zuen ez zegoela ados azken ebazpen horrekin, eskatutako agiriak aurkeztu baitzituen berrabiarazte-eskaerarekin batera. Agiri hauek eskatzen zitzaizkion: egoera zibilari eta ondasunei buruz bere jatorrizko herrialdean (Pakistan) egindako ziurtagiria, banku-kontuko mugimenduak, eta oinarrizko gastuak bazituela frogatzeko agiriak.

Prestazioak etenda mantentzeko arrazoi gisa, Lanbidek esan zuen ez zuela bete agertzeko eta Administrazioari laguntzeko betebeharra; zehazki: *“Ez du egiaztatzen oinarrizko gasturik daukanik. Ez du gastuok justifikatzen dituen dokumentaziorik aurkeztu.”*

Interesdunak aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu zuen 2019ko martxoaren 22an, prestazioei etenda eusteko ebazpenaren kontra. Idazki horretan adierazi zuen baietz, aurkeztu zituela eskatutako banku-mugimenduak, nahiz eta, egia esan, haietan ez zen mugimendurik ageri azken hilabeteetan.



Alde horretatik, azaldu zuen gutxieneko gastuak frogatzeko aukerarik ez zuela; izan ere, 2017ko abenduan diru-sarrerak bermatzeko errenta eten ziotenetik ez du izan halako gasturik. Azaldu zuen, halaber, senide eta ingurukoek egiten dizkioten ekarpenekin ordaintzen dituela eguneroko gastuak, eta guztiek dirua eskura ematen diotela edo bestela gauzazko ekarpenak egiten dizkiotela.

Azkenik, 2019ko apirilaren 17ko ebazpenaren bitartez Lanbidek adierazi zuen interesdunari azkendu egin zitzaiola diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea, prestazio horien ordainketak 12 hilabete baino gehiago iraun zuelako etenda.

2.- Azaldutakoa ikusita, aurkeztutako kexari dagokion izapidetzea emate aldera eta gaiaren xehetasunak argitzeko, Arartekoak lehenengo informazio eskaera bat egin zion Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari.

Erakunde honek alderdi hauei buruzko informazioa eskatu zuen:

- a) Kexagilearena prestazioa etenda jarraitzeko Lanbidek emandako arrazoi zehatzen azalpena, nahiz eta kexagileak adierazi ezin dituela gastu batzuk egiaztatu haiek ordaintzeko diru-sarrerarik ez badu; gainera, onartu du hurbilekoenen eta senideen laguntza jasotzen duela bere oinarrizko premiak betetzeko.
- b) Kexagilearen prestazioak etenda izan diren hilabeteen zenbaketari buruzko informazioa.
- c) Kexaren xedearekin erlazionatuta dagoen eta gure jardunerako interesgarria izan daitekeen beste edozein inguruabar.

3.- Lanbideko zuzendari nagusiaren idazkiak, Arartekoaren informazio eskaerari erantzunez, ez zituen aipatu diru-sarrerak bermatzeko errenta ez berrabiarazteko zer arrazoi izan ziren, etenaldiarekin jarraitzeko erabaki horren ondoren. Aurreko etenaldiaren arrazoiak baino ez zituen aipatu. Horregatik, laguntzeko eskaera bidali zuen berriz ere erakunde honek, enpleguaren arloko erakunde autonomoak adieraz zezan zergatik jarraitu zuen prestazioak etenda mantentzen.

4.- Lanbideren erantzuna honako hau izan da:

"2018/REV/127099 espedientea aztertuta erabaki da DSBE eta EPO prestazioak ez berritzea eta etenaldiari eustea, arrazoi hauek direla-eta: "administrazioaren aurrean ez agertzea, ez eta hari laguntzea ere, hala



egiteko eskatzen dionean gizarteratze-arloan eskumena duen edozein erakundek. Ez du gastuok justifikatzen dituen dokumentaziorik aurkeztu". Hortaz, ez da betetzen Diru Sarrerak Bermatzeko 147/2010 Dekretuaren 12.1 i artikuluan jasotako betebeharra, eta hori ez betetzeak etenaldia dakar, dekretu horren 43.2 artikulua ezartzen duenaren arabera.

Interesdunak ebazpen horren aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu zuen 2019ko martxoaren 22an, eta errekurtsu hori 2019ko abuztuaren 22an ezetsi zen. (2019/REC/006969)

Lanbidek etenaldiari eusteko dituen arrazoiei dagokienez, errekurtsogileak diru-sarrerarik ez duela alegatu arren, errekurtsua atzera botatzeko ebazpenean jasotako arrazoiak honako hauek dira:

"Argitu behar da diru-sarrerarik ez duela ez dela behar bezala egiaztatu. Are gehiago, errekurtsogileak berak ezeztatu du diru-sarrerarik ez duenik: errekurtsuan adierazi du gaur egun baliabideak dituela kaleko salmentan aritzeagatik, eta 2019ko urtarrilaren 4an aurkeztutako alegazioetan adierazita dauka hirugarrenek ere dirua uzten diotela.

*Gogoan izan behar da, **nahiz eta norberaren diru-sarrerarik ez duela frogatu, errekurtsogileak oinarrizko beharrak estalita dituela zelan edo hala, halako premia-egoera benetan existitzen bada.** Hortaz, ondorioztatu behar da dokumentaziorik ez aurkeztea ez dagoela behar bezala justifikatuta errekurtsogileak alegatutako ezintasuna dela-eta."*

Bigarren eskaerari dagokionez, idazki honi erantsi diogu interesdunak aurkeztutako errekurtsuari emandako erantzunaren testu osoa."

Lanbideko zuzendari nagusiaren 2019ko abuztuaren 22ko ebazpenaren bidez ezetsi egin da kexagileak jarritako errekurtsua. Ebazpen horretan datu hauek erantsi dira:

*"(...) La última alegación del recurrente se recoge en la queja oral transcrita presentada ante el Ararteko con fecha 15 de marzo de 2019. En él se indica que no puede acreditar los gastos porque no dispone de ingresos, al encontrarse con la prestación de la Renta de Garantía de Ingresos suspendida. **Añade a continuación que dispone de ingresos no regulares por venta ambulante.***

El artículo 2.1 del Decreto 147/2010, establece que la prestación de Renta de Garantía de Ingresos está dirigida a la cobertura de los gastos asociados a las necesidades básicas y al proceso de inclusión socio-laboral. La documentación solicitada y no aportada se entiende necesaria para determinar la necesidad de hacer frente a estos gastos básicos y de



inclusión socio-laboral y por lo tanto establecer la pertinencia de esta prestación.

Por otro lado, esta documentación puede ayudar a determinar si el recurrente cumple o no con el requisito de no disponer de recursos suficientes recogido en el artículo 9.3 del Decreto 147/2010, en relación a lo que recoge el artículo 22 de dicho Decreto. Constatar con qué recursos se están cubriendo las necesidades básicas y si estos son computables o no conforme a lo que disponen los artículos 15 y siguientes del Decreto 147/2010 es esencial para determinar si procede el reconocimiento de la prestación o no y en su caso su cuantía.

Es por ello que estimamos que la documentación requerida lo ha sido de manera legítima.

*OCTAVO.- En cuanto a la alegación del recurrente de que no puede acreditar los gastos ya que no tiene ingresos hay que aclarar que **la falta de ingresos no aparece acreditada de forma suficiente tampoco**. A mayor abundamiento, esta falta de ingresos resulta contradicha por el propio recurrente: **afirma en el presente recurso que dispone de ingresos por venta ambulante**, y, en las alegaciones presentadas en fecha 4 de enero de 2019 se indica, así mismo que terceros le están prestando cantidades.*

*Hay que recordar que, aun habiéndose acreditado la falta de ingresos propios, esta no obsta para que **las necesidades básicas del recurrente se estén cubriendo de alguna manera, si dicha situación de necesidad realmente existe**. Por lo tanto ha de concluirse que la falta de aportación de la documentación no está debidamente justificada por la imposibilidad que pretende el recurrente."*

Argigarri moduan, kexagileak Arartekoari ahoz aurkeztutako kexaren kopia aurkeztu zuen berraztertze-errekurtsoan. Kexa-idazki horretan azaldu zuenez, azken hilabeteetan ez zuen mugimendurik eduki bere banku-kontuan, hain zuzen ere diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria, ordura arte izan zituen diru-sarrera bakarrak, etenda zeudelako 2017ko abendutik. Egoera horretan, ingurukoek noiz edo behin ematen zioten dirua eta gau batzuetan plastikozko loreak salduz lortzen zuena beste diru-sarrerarik ez zuela aitortu zuen. Lanbidek alegazio hori eta antzeko beste batzuk hartu zituen oinarri errekurtsoa ezesteko.

Horrenbestez, beharrezkoak diren egitate eta zuzenbide elementuak ditugula uste dugunez, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:



Gogoetak

1.- 2017ko abenduan lehenengoz eten ziren prestazioak, agiri asko ez zirelako aurkeztu –diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren titulartasuna berritzeko baldintzak betetzen zirela egiaztatu ahal izateko beharrezkoak-. Ondoren, kexagileak eskatu zizkioten agiri guztiak aurkeztu zituen 2018ko otsailean, bere banku-kontuko mugimenduak barne. Bere erreferentziako bulegoan adierazi zioten moduan egin zuen hori.

Ildo horretan, merezi du gogora ekartzea Diru Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 46. artikulua dioena: *“diru-sarrerak bermatzeko errenta etetea eragin zuten arrazoiak desagertutakoan, foru-aldundiak, ofizioz edo alderdi batek eskatuta, egiaztatu egingo du **une horretan prestazioa ordaintzeko baldintzak gertatzen ote diren** eta, hala badagokio, prestazioaren zenbatekoa ezarri. Horretarako, dekretu honetako 53., 54. eta 55. artikuluetan aurreikusitako prozedura-arauak aplikatuko dira”*.

Lanbidek baieztatu du kexagileak ez diola lagundu Administrazioari, eta arrazoi horixe hartu du oinarritzat kexagilearen prestazioari etenda eusteko. Zehazki, enpleguaren arloko erakunde autonomoak alegatu du ez dela bete Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 12.1.i) artikulua. Bertan, diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrari dagozkion betebeharren artean, hau aipatzen da: *“i) Administrazioaren aurrean agertzea eta harekin lankidetzan aritzea, hori eskatzen bazaie; nolahi ere, kontuan izango dira gizarteratzeko hitzarmenean aurreikusitako kasu bereziak”*.

Baieztapen horri eusteko arrazoi bakarra eman du: kexagileak ez zuela aurkeztu berrabiarazteko behar zen dokumentazioa. **Ez du esan zehazki zein agiri aurkeztu behar zuen eta zertarako, hau da, eskatutako dokumentazioaren bitartez zein baldintza egiaztatu nahi zuen administrazio horrek.**

Arartekoaren iritziz, **Lanbidek baldintzen ez-betetzea argudiatu behar zuen etenaldia mantentzeko erabakia arrazoitzeko**, eta zehaztu egin behar zuen zergatik uste zuen ez zirela baldintzak bete. Hala, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 35.1.a) artikulua arabera, *“arrazoitu egin behar dira, egitateak eta zuzenbideko oinarriak labur adieraziz, a) eskubide subjektiboak edo interes legitimoak murrizten dituzten egintzak. (...)”*.



Dena dela, kontuan izanik Lanbidek alde zuzenetik azken 12 hilabeteetako banku-mugimenduen kopia eskatua zuela, ondorioztatu behar da ebazpenak erreferentzia egiten diola kexagilearen diru-sarrerari buruzko eta gutxienezko gastuak ordaintzeko moduari buruzko banku-agiriak aurkeztu ez izanari.

Gorago ere adierazi den moduan, kexagileak kexari erantsi dizkion agiriak aztertuta, egiaztatu da interesdunak, **bere banku-mugimenduak aurkeztu ez ezik, idatziz azaldu zuela, gainera, noizbehinka inguruko laguntzak jasotzen zituela bere oinarri-oinarrizko gastuei aurre egin ahal izateko.**

Horregatik, Arartekoaren iritziz, **kexagileak bete du Administrazioak hala eskatzen duenean harengana agertzeko eta harekin lankidetzan aritzeko betebeharra;** ez dauka banku-mugimendurik, zailtasun ekonomiko handiko egoeran dagoelako, baina ezin zaio inguruabar horregatik egotzi Administrazioarekin lankidetzan aritzeko betebeharra ez betetzea.

2.- Lanbidek defendatzen duen jarreraren arabera, kexagileak eguneroko gastuei aurre egiteko dituen diru-sarrerari buruzko dokumentaziorik aurkeztu ez izanak **aitortu gabeko diru-sarrerak ote dituen pentsarazten du.** Erakunde honentzako txostenean esandakoa berriro jasoko da: *"(...) nahiz eta norberaren diru-sarrerarik ez duela frogatu, errekurtsogileak oinarriko beharrak estalita dituela zelan edo hala, halako premia-egoera benetan existitzen bada.*

Kontuan hartzeko elementu gisa, esan beharra dago kexagileak Arartekoari aurkeztutako ahozko kexaren idazkia erantsi ziola aukerako berraztertze-errekurtsuari; era horretara, **noizbehinkako diru-sarrerak zituela jakinarazi zion Lanbideri.** Hitzez hitz aipatuko dugu horri dagokionez interesatzen zaigun kexaren puntua: *"El interesado forma parte de una UC unipersonal, y no tiene otros ingresos más que los que consigue de vender flores, pulseras etcétera por las noches. No son ingresos regulares, pero es lo único de lo que vive. Desde la Oficina de Atención orientamos a informar sobre estos ingresos en Lanbide."*

Informazio-eskaerari erantzunez Lanbideko zuzendari nagusiak igorritako idazkiak zuzen dioten bezala, ordea, **informazio hori aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri zenetik aurrera baino ez zen ezagutzen;** lehenago, hau da, Lanbidek 2018ko otsailean prestazioak etenda mantentzea erabaki zuenean, interesdunak bere banku-kontuan mugimendurik ez zuela besterik ez zegoen egiaztatuta. Hala ere, Lanbidek prestazioa etenda mantentzea erabaki zuen.



Dena dela, **ez Lanbidek ez erakunde honek ezin dugu inola ere alboratu berraztertze-errekurtsoari erantsitako dokumentuan eman zen informazioa**, zeren eta diru-sarrera horiek Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 14.1 artikuluan ezarritakoari jarraituz konputatu behar baitira.

Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen (aurrerantzean 18/2008 Legea) 16.c) artikulua, era berean, diru-sarrerak bermatzeko errenta emateko baldintza gisa ezartzen du prestazioaren eskatzaileak **nahiko baliabiderik ez edukitzea**.

Ilido horretan, aipatutako legearen 53. artikulua, *“Errendimenduak zehaztea”* izenburuaren pean, hau dio lehenengo paragrafoan: *“Errendimenduak zenbatzerakoan, norberaren konturako edo besteren konturako lanetik, ondaretik, pentsioetatik edo beste edozein titulutatik datozenak hartuko dira kontuan”*.

Hori horrela, goian transkribatu den apartatua irakurrita, ez dirudi okerra denik ulertzea 53. artikulua horren bidez errendimenduen barruan sartu nahi direla **arruntzat jotzen diren diru-sarrerak, hau da, ohikoak edo aldian-aldikoak direnak**; izan ere, lanetik, ondaretik, pentsioetatik edo beste edozein titulutatik (jasotzeko eskubidea ematen duen edozein agiritatik) datozen errendimenduei egiten die erreferentzia, betiere.

Esku artean dugun kasuan, ez du ematen kexagileak noizean behin lortu dituen ezohiko diru-sarrera horiek, bizirik irautea xede zutenak –berriro diogu **2017tik etenda zeuzkala diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria**–, ohiko gisa kalifikatu daitezkeenik, eta ezin da esan euren jatorria exigitzeko eskubidea ematen dion titulu bat denik. Hain zuzen ere, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria eskatzen duten edo, kasu honetan bezala, luzaroan eteten zaizkien pertsonetariko askok ez dute frogatzen diru-sarrerarik dutenik, eta hala ere *“bizirik irauten dute”*.

Euskal Autonomia Erkidegoan aitortutako prestazio ekonomikoen bidez, gizarte-bazterketako egoera larriak leuntzea eta gutxieneko duintasuna bermatzea lortu da. Ordezko aukerak, dirudienez, biziraupenerako zenbait jarduketara, familiaren eta komunitatearen elkartasuna edo eskeketza izan daitezke. Ez du zentzuzkoa ematen pertsonak nola lortu duen bizirik irautea frogatu beharra izateak diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo etxebizitzarako prestazio osagarriaren onuradun izateko. Nolanahi ere, egungo araudiak ez du halako baldintzarik aurreikusten.



Horregatik, erakunde honi atentzioa eman dio nola kexagileari prestazioak eten eta azkendu zaizkion ezin izan dituelako frogatu noizbehinka eta modu informalean lortu dituen diru-sarrera horiek, urriak inondik ere, eta behar-beharrezkoak zituenak, prestazioaren ordainketa etenda baitzeukan. Kasu honetan, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren beste eskatzaile batzuekin duen aldea da haien berri eman zuela Arartekoaren erakundeari aurkeztu zion kexa-idazkian, gero kexa-idazki hori Lanbiden aurkeztu zuela, eta bertan ikus daitekeela nola erakunde honek gomendatu zion hori guztia jakinaraz zezala bere erreferentziako bulegoan.

Ondorio gisa, erakunde honek uste du kexagileak ezin izan zituela frogatu noizbehinka jasotzen zituen diru-sarrerak, horien izaerak berak eragozten ziolako, eta horrek ez duela esan nahi, erakunde honen iritziz, baliabide ekonomikorik ez izatearen baldintza bete ez duenik (Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 16.c) artikulua).

3.- Baldin eta Lanbidek, berraztertze-errekurtsoaren fasean informazio hori jaso ondoren, interesdunak aldez aurretik aitortu gabeko diru-sarrerei dagokienez mesfidati jarraituko balu, erakunde honek interpretatuko luke diru-sarrerak bermatzeko errentaren bidez lortu nahi diren helburuetarako jarrera aldekoagoa hartu behar lukeela enpleguaren arloko erakunde autonomoak.

Ildo horretan, 18/2008 Legearen zioen azalpenak dioenez, *"gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarrizko errenta (...) lan-errentetatik datorren baliabide ekonomiko propiorik ez duten pertsona eta bizikidetz-unitateentzat izango da nagusiki, baldin eta hileroko dituzten diru-sarrerak gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarrizko errentara iristen ez badira"*.

Kexagileak eduki ahal izan zituen diru-sarrerei buruzko zalantza sortu bazen, erakunde honen iritziz, **beste entzunaldi-izapide bat egin behar zen, eta bertan berariaz eskatu behar ziren argibideak eskatzaileak izandako noizbehinkako diru-sarrerei buruz.**

Honelako kasuetan ez da gutxitan gertatzen, diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrek aitortu gabeko diru-sarrerak eduki ditzaketenean, Lanbidek zinpeko adierazpena aurkezteko eskatzea. Adierazpen horretan diru-sarrera horien izaera, iturria eta zenbatekoa zehaztu behar dituzte. Halakoetan jakintzat eman ohi da gizarte-prestazioak eskatu aurretik pertsonak nola edo halako diru-sarreraren bat



izan dutela bizirik irauteko, eta askotan ez direla titulu jakin batetik ateratako diru-sarrerak izaten.

Hala, ordezeko aukera gisa, Arartekoak uste du Lanbideren esku zegoela **lehenengo etenaldiaren ondoren prestazioak berriro ordaintzen hasi, eta beste entzunaldi-izapide bat egitea, diru-sarrerei buruzko zinpeko adierazpena eskatu eta noizbehinkako diru-sarrerak ala aldian-aldikoak ziren aztertu ahal izateko**. Eta ordaindu beharreko zenbatekoa murriztea ere erabaki zezakeen, kaleko salmentaren bidezko diru-sarrerak ohikoak zirela egiaztatuz gero.

Horren haritik, entzunaldi-izapide edo dokumentazio-errekerimendu bat abian jartzeko oinarria izango litzateke, erakunde honen iritziz, berrabiarazteko eskaera baten eta hasierako eskaera baten arteko parekotasuna –batez ere, hainbeste hilabete igaro direnean diru-sarrerarik jaso gabe–. Hala, bada, hasierako eskaerei dagokienez, 39/2015 Legearen 68.1 artikulua honako hau xedatzen du: *"Prozedura hasteko eskaeran ez badira betetzen 66. artikuluko betekizunak eta, hala badagokio, 67. artikuluan adierazitakoak edo aplikagarri den legeria espezifikoan eskatutako beste batzuk, **interesdunari errekerimendua egingo zaio hamar eguneko epean falta zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko dokumentuak eramateko, eta adieraziko zaio ezen, hala egin ezean, eskaeran atzera egindakotzat joko dela, horretarako ebazpena 21. artikuluan jasotako moduan eman ondoren"**.*

Abenduaren 23ko 18/2008 Legeak berak ere hau dio 60.2 artikuluan: *"Udalak aurkeztu diren eskabideen edukia egiaztatuko du, eta, ondorio horietarako, behar beste datu eta txosten eskatu ahalko die beste instituzio eta erakunde publiko zein pribatuei, edo eskatzaileari berari (...)"*. Eta hau gehitzen du: *"Aurreko lerrokadan aipatutako datuak eta txostenak hauek baino ez dira izango: **eskatzaileak lege honetan ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko ezinbestekoak direnak"**.*

4.- Lanbidek etenaldia bigarren bezala mantentzeko hartutako erabakiak, arestian esan dugun moduan, etenaldi hori 12 hilabete baino gehiago iraunarazi du eta ondorioz prestazioa azkendu egin da, eta, gainera, urtebete igaro arte beste eskaera bat izapidetzea eragotzi du –Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 49.g) artikuluan aurreikusitako azkentze-kausa, eta dekretu beraren 50.2 artikulua bigarren apartatuan aurreikusitako ondorioa–.

Horregatik guztiagatik, erakunde honek uste du Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean jasotako proportzionaltasun



printzipioa aldarrikatu beharra dagoela. Honako hau dio lege horren 4. artikulua ("Administrazio publikoen esku-hartzeko printzipioak, jarduerak egiteko"):

*1. Administrazio publikoek, haien eskumenen barruan dihardutela, eskubide indibidualak edo kolektiboak gauzatzea murrizten duten neurriak ezartzen badituzte edo jarduera bat egiteko betekizunak eskatzen badituzte, **proportzionaltasun-printzipioa aplikatu beharko dute eta murrizketa txikiena eragiten duen neurria aukeratu beharko dute, interes publikoa babesteko beharrezkoa dela arrazoitu eta lortu nahi diren helburuetarako egokia dela justifikatu, betiere diskriminazioa eragiten duten tratu-desberdintasunak baztertuz. Halaber, lortutako eragin eta emaitzak ebaluatu beharko dituzte aldizka.***

5.- Horrenbestez, Arartekoak uste du Lanbidek dokumentazioa ez aurkezteagatik mantendu diola etenda kexagileari diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubide subjektiboa, baina interesdunak aurkeztu, aurkeztua zuela aldi behingo diru-sarrerei buruzko dokumentazio hori.

Adierazi beharra dago Administrazioak jakitun zela bizikidetasun-unitatean beste diru-sarrera batzuk izan zitezkeela prestazioa etenda egon zen bitartean. Enpleguaren arloko erakunde autonomoak bide bermezaleago bat ireki zezakeen, administratuaren interesen aldekoagoa; esaterako, bere diru-sarrerei buruzko zinpeko adierazpena idazteko eskatzea, ondoren Lanbidek prestazioa berrabiarazteko bere erabakia moldatu ahal izateko eta prestazioaren zenbateko egokia erabakitzeke.

Arartekoaren iritziz, kexagileak, berrabiarazte-eskaera aurkezterakoan, eskatzen zitzaion dokumentazioa eman zuen, eta baliabide ekonomikorik ez izatearen baldintza betetzen zuela frogatu zuen (Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 16.c) artikulua). Inguruabar horiek tarteko, ez da zentzuzkoa diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea azkentzea prestazio horien ordainketak 12 hilabete baino gehiago iraun duelako etenda. Lanbidek ez zion eskatu ezkutuko ekonomian egindako noizbehinkako salmenten bidezko diru-sarrerak froga zitzala. Ezinezko froga da, bestalde, beharrianak "nola edo hala" estalita zeuzkala frogatzeko eskatzea.

Arartekoak berriro adierazi behar du Lanbideren erabakiaren ondorioak bereziki larriak izan direla kexagilearentzat. Izan ere, 2017ko abendutik etenda eduki du



diru-sarrerak bermatzeko errenta, eta 2019ko apirilaren 17an azkendu egin zaio errenta hori, eta gainera ezin du berriro eskatu urtebete igaro arte, hau da, 2020ko apirilera arte. Horrenbestez, erakunde honek berriro ohartarazi behar du proportzionaltasun printzipioa bete behar dela eta beste neurriren bat aplikatu behar dela, ez hain murriztailea eta gure komunitatearen gizarte-babeseko sistemaren helburuetarako egokiagoa (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 4. artikulua).

* * *

Azaldutako guztiagatik, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11.b) artikuluan ezarritakoari jarraituz, Arartekoak Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari honako iradokizun hau egin nahi dio:

IRADOKIZUNA

Aurreko gogoetetan oinarrituta, Arartekoak iradokitzen dio berrikus dezala Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen hori, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea azkentzen duena; izan ere, Arartekoak uste du kexagileak bete zituela aurretiaz berrabiatzeko betekizunak eta bete zuela Administrazioari laguntzeko betebeharra, diru-sarrera nahikorik ez zuela frogatzeko agiriak aurkeztuz.